

HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea



3. maila (C1) | Idazmen-proba

Ariketa	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Denbora
Idazlana	15	30	90 min

2015eko lehen deialdia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO





Egitekoa

Jarraian proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu, eta ondoren, eskatzen zaizuna kontuan hartuz, idazmen-proba egin.

Oharrak:

- Idazteko boligrafoa erabili.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 300 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana egiteko **90 minutu dituzu.**

3. mailarako helburuak kontuan hartuta, idazlana zuzentzeko irizpideak:

Egokitasuna

Eskatutako gai, solaskide eta xedearen araberrako lotura. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua. Lexikoaren modalizazioa.

Koherentzia

Idea nagusien eta lagungarrien hari logikoa. Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa. Ideien osotasuna.

Kohesioa

Esaldi, paragrafo eta testu osoa elkarlotzeko testu-antolatzaileen erabilera eraginkorra. Puntuazio-sistema. Kohesio-mekanismoen erabilera: anaforak, ordezkapenak, elipsiak.

Aberastasuna

Hizkuntz baliabideen ugaritasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.

Zuzentasuna

Gramatika-arauak: ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia... Gaiari loturiko lexikoa.

Aukeratu proposatzen diren bi gai hauetatik **bat**:

1. gaia: Etxebizitza trukatzeta, bidaiatzeko era merkea

Egoera:

Egun, etxebizitza trukatzeko zerbitzua eskaintzen duten agentzia andana dago, eta gehienek Interneten bidez egiten dute lan. Etxebizitza-truke-rako webguneetan, bezeroek etxeei buruzko argibideak eskegi, beste batzuenak jaso eta euren artean harremanetan jartzeko aukera dute.

Hurrengo oporretarako aukera ona izan litekeela bururatu zaizu eta webgune baten berri ere izan duzu: www.etxebizitzatrukatu.eus. Han sartu, eta ikusi duzu webguneak galdera eta iradokizunetarako zerbitzua eskaintzen duela bezeroek euren zalantzak, kezak edo proposamenak helarazteko. Bidaiatzeko era honi buruz informazio askorik ez duzunez, galdetzea erabaki duzu.

Eginkizuna:

Idatzi **gutuna** webgunearen **arduradunari**. Honako hau da xedea: **azaldu** nola izan duzun agentziaren berri eta zergatik duzun etxebizitza trukatzeko interesa; **adierazi** zer eskaintzen duzun eta zeren bila zabiltzan; **eskatu zalan-tzak argitzeko** (prozedurari buruz dituzunak: nola jarri iragarkia, nola jarri harremanetan beste bezeroekin...); eta **eman zure kezken berri** (trukeak eragiten dizkizunak: etxea hondatu, lapurreta...).



2. gaia: Telebista aurrean ordu txikiak arte

Gainerako europarrek baino ia ordubete gutxiago egiten omen dugu lo hemen, besteak beste, telebista berandura arte ikusten geratzen garelako: gauerdian, Espainiako Estatuan 18 milioi ikusle egoten dira telebistaren aurrean, eta horrek herritarren atsedinari zuzenean eragiten dio, eta, ondorioz, baita laneko errendimenduari ere. Hori dela eta, Osasun-ministroak prime time-a aurreratzeko proposamena egin die telebista-kateei.

Euskadi Irratia, 2014ko maiatzaren 8a

Eginkizuna:

Atzerritarra zara. Hainbat urte dira zeure sorterritik (Alemania, Erresuma Batua, Polonia...) Euskal Herrira etorri zinela bizi izatera, eta, jada ohitu bazara ere, hasieran kostatzen zizaitzen zintzen hemengo ordutegietara moldatzea.

Euskaltegian ere hizpide izan duzue telebistako saioen ordutegia. Horrek **euskaltegiko aldizkarian iritzi-artikulua** argitaratzera bultzatu zaitu, gaiari buruz duzun **ikuspuntua agertu** eta irakurleei **gogoeta eragitea** xede.

Lagungarriak:

- Audentzia handieneko denbora-tarteak: Europan 20:00-23:00, hemen 22:00-24:00.
- Europa osoan ordutegi berantiarrena.
- Telebista-kateen ordutegia aldatzeko, lehenik bizimodua aldatu behar?
- Atsedan desegokiaren ondorioak: lanean, eskolan...
- Proposamenaren helburua: osasuna ala errentagarritasuna?
- Herritarren askatasuna. Bizimodua aldarazi behar digute?



**Zirriborroetarako orria
(orri hau ez da zuzenduko)**